


# Funtsezko baliabideak



Proiektua gauzateko ezinbestekoak dira baliabide ukigarri, zein ukiezinak. Dena ez da aplikazioa, norberak berea ordaindu eta sentsoreak instalatzea. Ikusten ez den lan asko dago, besteak beste, aplikazioaren diseinatze prozesua, bilerak, koordinazioa, marketin kanpainen hautaketa, bezeroenganako arreta...

Batetik, baliabide fisikoetan, bilerentzako edo subkontrataturako langileentzako bulegoak, haientzako ordenagailuak, bezeroen arretarako telefonoak, sentsoreak etabar kokatuko genituzke. Adibidez, langileek WiFi-rako konexioa ezinbestekoa dute eta leku fisiko bat, Donostian izango dugun lokala esaterako. Bezeroren batek zalantza edo arazoren bat badu ere lau telefono eta instalakuntza txiki batzuk ere izatea komeniko litzaiguke.

Bestetik, baliabide intelektualak eta giza baliabideak lirateke aplikazioa diseinatzeko eta marketinarako enpresa txikiak duen abilezia eta esperientzia, beste langileek sentsoreen instalakuntzarenarekin dutenarekin batera. Diseinatzeko abilezia duenak erraz eta ongi egingo du bere lana eta esperientzia badu, profesionalagoa eta hobea izango da emaitza. Sentsoreak instalatzen ohituta dagoen langile batek, aldiz, efizientzia maila altuagoa izango du. Batetik, denbora gutxiagoan azkarrago burutuko duelako lana, eta bestetik, ez delako probatzen, ikasten eta kontrolatuta izango duelako dena.

Eta, azkenik, finantza-baliabideak ditugu. Hemen kokatuko genuke proiektuari hasiera eta lehen bultzada emateko beharrezko mailegua eta bazkideok jarritakoa. Diru kantitate zehatz bat eduki beharko genuke, lehenengo hilabeteetako gastuei aurre egiteko eta pixkanaka irabaziak izaten joateko. Mailegatutako dirua, bost mila euro hain zuzen, interesekin itzuliko genioke bankuari. Bazkide bakoitzak ere mila euro jarriko ditugu hasierako bultzada hori emateko.